



Usurbilgo Udala

2025/12/05

2025EKO ABENDUAREN 5EAN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Xabier Aranburu Leiva, Maialen Iñarra Arregi eta Xabier Otxoa Muñoz.

Usurbilen, 2025eko abenduaren 5ean goizeko 9:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Goizeko 09:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2026KO ORDENANTZA FISKALEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUN ETA ORDENANTZA FISKALAK BEHIN BETIKO ONARTZEA (2025EKOF0002).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Aurrekariak



Usurbilgo Udala

2025/12/05

1. Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 8an egindako bilkuran, Ordenantza Fiskalen aldaketarako proiektuari hasierako onespina ematea erabaki zuen, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren (TOALTB) 15.etik 19.era bitarteko artikuluetan eta Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.
2. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2025eko urriaren 14ean, eta hogeita hamar egun balioduneko jendaurreko informazio-aldia ireki zen. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu ahal izan zuten, eta erreklamazioak edo alegazioak aurkeztu ahal izan zituzten, TOALTBren 17. artikuluen arabera.
3. Epe horren barruan, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen Ángel José Cervantes Martín jaunak; sarrera-zenbakia: 2025-4537, data honekin: 2025eko urriaren 14a.
4. Epe horren barruan, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen Pedro María Ibarra Iraculis jaunak; sarrera-zenbakia: 2025-5185, data honekin: 2025eko urriaren 25a.

Araudi aplikagarria

LEHENENGOA. – TOALTBren 17. artikuluen arabera, jendaurreko informazio-aldian, interesdun direnek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak edo alegazioak, hau da, ordenantzaren edukian interes zuzena dutenek.

BIGARRENA. – Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren 2004ko azaroaren 3ko epaia, RJ 2004/6719; Auzitegi Gorenaren 2000ko urtarrilaren 28ko epaia, RJ 2000/1271), legitimaziorik ezak eragotzi egiten du alegazioen mamian sartzea, eta bidezkoa da alegazio horiek ez onartzea.

HIRUGARRENA. – Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluetan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren (AJA) 134. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalaren Osoko Bilkurari dagokio aurkeztutako erreklamazioak ebaztea eta ordenantza fiskala behin betiko onartzea.

Ikusita

LEHENENGOA.- Ángel José Cervantes Martín jaunak aurkeztutako alegazioen edukia eta Diruzainak egindako ebazpen proposamena, egiaztatu da agertutakoak ez duela egiaztatzen interes zuzen, pertsonal eta legitimorik duenik ordenantza fiskalaren edukian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluen arabera.

BIGARRENA. – Ondorioz, Ángel José Cervantes Martín jaunak egindako alegazioak ez dira onartu behar interes legitimorik ez izateagatik, ez baitira betetzen 39/2015 Legearen 4. artikuluan eta TOALTBren 17. artikuluan ezarritako baldintzak.

HIRUGARRENA.- Pedro María Ibarra Iraculis jaunak aurkeztutako alegazioen edukia eta Diruzainak egindako ebazpen proposamena, egiaztatu da:



Usurbilgo Udala

2025/12/05

- Ordenantza Fiskalak iragarki taulan hogeita hamar egunez agerian jarri direla, Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAU Erregulatzailerak zehazten duenaren arabera, eta hori legeak ezartzen duen gutxieneko publizitatea betetzeko nahikoa dela. Ez da legalki Ordenantza Fiskalak nulutzat jotzeko arrazoirik.

- Interesdunak aipatzen dituen tributuen garapena Ordenantza Fiskaletan "Legedi Aplikagarrian" adierazitako Foru Arauen arabera dela. Izan ere, bai ez ohiko etxebizitza hutsagatik % 150eko errekarua bai hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren aktualizazio koefizienteak legeak finkatzen dituen gehieneko balioen barruan daude eta, beraz, juridikoki zuzenak dira.

Antolakuntza batzordeak, 2025eko abenduaren 1eko bilkuran, aho batez, Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso eta Josune Urkolaren aldeko botoarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Deklaratzea Ángel José Cervantes Martín jauna ez dela interesduna Usurbilgo udalaren Ordenantza Fiskalen aldaketa onartzeko prozeduran, ez duelako interes zuzen eta legitimorik, 39/2015 Legearen 4. artikularen eta TOALTBren 17. artikularen arabera.

BIGARRENA: Deklaratzea Pedro María Ibarra jaunak egindako alegazioan arrazoitutakoa ezestea Ordenantza Fiskalek dagozkien Foru Arauetan zehaztutako gehiengo ehuneko eta koefizienteak betetzen dituztelako

HIRUGARRENA: Ondorioz, egindako alegazioak ez onartzea.

LAUGARRENA: 2026ko Ordenantza Fiskalen aldaketak behin betiko onartzea. Ordenantza horren testua erabaki honen eranskinean dago.

BOSGARRENA: Ordenantzaren testua osorik argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

SEIGARRENA: Adieraztea haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera."

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2025/12/05

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du goizeko 09:10etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.